



MEMORIA 2025

DURANGALDEAN EMAKUMEEN
KONTRAKO INDARKERIAREN AURREAN
JARDUTEKO ETA KOORDINATZEKO
II. PROTOKOLOA

MEMORIA 2025



Elorriko udala



Durangaldeko
Mankomunitatea
Mancomunidad
de Durangaldea



AURKIBIDEA

SARRERA	3
BARNE FUNTZIONAMENDUA 2025EAN	4
HELBURUAK ETA 2025EAN GAUZATUTAKO EKINTZAK	6
PROTOKOLOAREN HARIRA 2025EAN ARTATUTAKO KASUAK	17
2025EAN IDENTIFIKATUTAKO AURRERAPENAK, LORPENAK, ZAILTASUNAK ETA ERRONKAK	24

SARRERA

Durungaldean emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean jarduteko eta koordinatzeko II. protokoloaren (aurrerantzean, II protokoloa) ibilbidean, arreta-zirkuitua sendotzeko eta hobetzeko ekintzak eta neurriak egin dira etengabe. 2025. urteak beste bultzada bat eman dio prozesu honi, batez ere protokoloa eguneratzeari eta erakundeen arteko koordinazioa indartzeari dagokienez, **EAEko emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko erakundearteko III. Akordioarekin** bat etorritz.

Memoria honen helburua da **2025. urtean zehar landutako ekintzen eta helburuen berri ematea**; baita aldi honetan lanerako izan dugun ikuspegiaren berri ematea ere. Bertan, Durungaldeko protokoloa osatzen duten erakunde eta eragileek sustatutako indarkeria matxista egoeran dauden emakumeei arreta ematearekin lotutako ekintza adierazgarrienak identifikatu eta deskribatzen dira, bereziki aurreko ekitaldiekin alderatuta berritasuna izan direnak eta arretaren kalitatean eragin nabarmena izan dutenak edo izan dezaketenak.

Aurreko urteetan bezala, 2025ean garatutako ekintzarik adierazgarrienak oso lotuta egon dira lan-tresnak berrikustearekin, datuak biltzeko sistemak prestatzeko, hedatzeko eta hobetzeko ekintzak bultzatzearekin eta inplikaturako eragileen arteko koordinazio-mekanismoak indartzearekin lotutako konpromisoekin.

2025. urtea Mahai Teknikoetan egindako lan jarraituak markatu du, eta, aldi berean, Koordinazio Orokorreko Mahaiak protokoloaren ardatz estrategikoak zaintzen jarraitu du, baliabideetan izandako aldaketetara egokituz eta, beharrezkoa izan denean, hasieran aurreikusitako helburuak doituz.

Aurten, gainera, **indarrean dagoen II. protokoloa eguneratzeko** prozesuari ekin zaio, eta, lehen fasean, haren esparru teorikoa berrikusi da eta arau-testuinguru berrira egokitu da. Lan horrek jarraipena izango du 2026an. Era berean, indarkeria matxistari arreta emateko baliabideen dibulgazio-mapa eguneratzeko prozesua jarri da martxan, herritarrek eta profesionalak informazioa errazago eskura dezaten.

Jarduera horiek guztiak indarkeria matxista desagerrarazteko bidean aurrera egiten jarraitzeko asmoz egin dira. Indarkeria giza eskubideen urraketa larritzat jotzen da, eta baliabide espezializatuek, administrazio publikoek eta gizarte osoak konpromisoa hartzea eskatzen du, erantzun integrala, koordinatua eta eraginkorra bermatzeko.

Aurreko urteetan bezala, memoria hau Koordinazio Orokorreko Mahaiak egin eta Koordinazio Teknikoko Mahaiak aztertu du, eta ondoren, Koordinazio Politikoko Mahaiari aurkeztu dio.

Koordinazio Orokorreko Mahaiak

BARNE FUNTZIONAMENDUA 2025EAN

II. protokoloak erakundeen arteko koordinaziorako zenbait maila ezartzen ditu. **Instituzioen arteko koordinazioa** da nagusia, horretarako diseinatutako Koordinazio Mahaien bidez egin beharrekoa. 2025ean **26 bilera** egin dituzte mahai horiek:

 KOORDINAZIO OROKORREKO MAHAIA (KOM) Parte-hartzaileak: inplikaturako udaletako berdintasun-teknikariak eta idazkaritza teknikoa.	 KOORDINAZIO TEKNIKOKO MAHAIA (KTM) Parte-hartzaileak: indarkeria jasan duten emakumeak artatzeko zerbitzuetako teknikariak, berdintasun-teknikariak eta idazkaritza teknikoa.	 KOORDINAZIO POLITIKOKO MAHAIA (KPM) Parte hartzaileak: udal desberdinetako politikariak, mankomunitateko presidentea, Ertzaintzaren eta Osakidetzaren arduradunak, berdintasun-teknikariak eta idazkaritza teknikoa.
Aldizkakotasuna: hiru hilean behin (beharraren arabera). 2025eko urtarrilak 8 (Elorrio) 2025eko otsailak 19 (online) 2025eko ekainak 3 (Berriz) 2025eko irailak 28 (Durango) 2025eko azaroak 18 (Berriz) 2025eko abenduak 16 (Bilbo)	Aldizkakotasuna: urtean lau aldiz (hiruhileko bakoitzean behin). 2025/01/29 2025/05/16 2025/07/11 2025/10/24	Aldizkakotasuna: behin, urtearen hasieran. 2025/02/07
Helburuak: Urte honetan zehar, protokoloan jasotako ekintza guztiak bultzatzera bideratuta egon dira mahai honen helburuak.	Helburuak: Arreta jaso duten emakumeen datuak partekatzea, hobetzeko arloak hautematea eta baliabideek emakumeei arreta ematean jarraitzen duten prozedura ezagutzera ematea, baliabideen arteko koordinazioa hobetzeko, indarguneak eta hobetzeko alderdiak identifikatuz, beste gauza batzuen artean.	Helburuak: Urte osoan zehar egindako lana ezagutzea eta mahai teknikoak hartutako erabakiak baliozkotzea.

Otsailaren 7an izandako mahai politikoan, lau udalerrietako alkateek protokoloan lan egiten jarraitzeko borondatea adierazi zuten, behar den laguntza teknikoarekin, eta dagokion lizitazioa onartu zuten. Era horretan, Durungaldean emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean jarduteko eta koordinatzeko II. protokoloa hobetzen jarraitzeko konpromisoa berretsi zuten.



TOKIKO KOORDINAZIOKO MAHAIA (TKM)

Parte-hartzaileak: indarkeria jasan duten emakumeak artatzeko tokiko zerbitzueta teknikariak, berdintasun-teknikariak eta idazkaritza teknikoa.

Aldizkakotasuna: urtean lau aldiz (hiruhileko bakoitzean behin).

Helburuak: udalerrian artatutako emakumeen datuak partekatzea. Kasuei buruz gogoeta egin daiteke larrialdia eta gero, eta ikuspegi osatuagoa eta koordinatuagoa eskaintzen du. Kasuen jarraipena egitea errazten du: informazioa eragileen artean partekatzen bada, testuingurua hobeto uler daiteke, ereduak detekta daitezke (birbiktimizazioa kasurako), eta arretaren eraginkortasuna eta jarraitutasuna hobetu, ondorioz.

Tokiko mahaietan, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko arreta, prebentzio eta jarduketaren arloan eskumen zuzena duten arloetako udal profesionalak parte hartzen dute, arlo teknikoan zein politikoan, eta tokiko koordinaziorako gune giltzarriak dira.

2025ean, Berrizko mahaia nabarmendu da bereziki, hiru hilean behin egiten dituen lau bileren bidez eta Udaltzaingoa kasu berriak detektatzeko eta arreta hobetzeko funtsezko eragile gisa sartuta sendotu baita. Aldiz, Abadiñon ez da berdintasun-teknikaririk izan zenbait hilabetez, eta ezinezkoa izan da ohiko bileren maiztasuna mantentzea. Horrek mugatu egin du tokiko mahaiaren funtzionamendu erregularra urtean zehar.

Udalerri bakoitzak, bere testuingurutik, zuzeneko esku-hartzerako aukera handiagoa du —mahai teknikoak ez bezala—. Mahai horiek aukera ematen dute prebentzioaren, arretaren eta jarraipenaren arloetan lan egiteko aukerak zabaltzeko; mahai teknikoak, berriz, batez ere koordinaziora bideratzen da. Horregatik, bereziki garrantzitsua da gune horietan parte hartzeko konpromisoa indartzea. Gainera, bilerak hiru hilean behin programatzeak agendan lehenestea errazten du. Aurten, honako hauek izan dira tokiko mahaien testuinguruan egindako bilerak:

Abadiño	Berriz	Durango	Elorrio
2025/01/29	2025/01/29	2025/01/29	2025/01/22
2025/05/20	2025/05/13	2025/05/16	2025/05/15
2025/07/01	2025/07/09	2025/07/11	2025/07/08
	2025/10/22	2025/10/24	2025/10/22

HELBURUAK ETA 2025EAN GAUZATUTAKO EKINTZAK

Protokoloaren esparruko helburuak eta egindako ekintzak helburu finkatueta eta helburu espezifikoeta bana daitezke:

<i>Helburu eta ekintza FINKATUAK</i>	<i>Helburu eta ekintza ESPEZIFIKOAK</i>
•Urtero aldizka egiten direnak dira, eta protokoloan, urtetik urtera, ohiko prozeduran ezarrita daude.	•Abian den ikasturterako diseinatzen dira, eta ez dago urtero jorratu beharrik.

2025erako helburuak urtearen hasieran (urtarrilean) ezarritako plangintzak zehazten ditu, baina hasierako helburu batzuk aldatu edo data desberdinetan egin dira, protokoloaren beharretara egokitzeko, eta, aldi berean, ekintza berriak sartu dira. Jarraian, urtearen hasieran markatutako helburu orokorrak aurkezten dira, dagozkien aldaketekin:

- Erakundeen arteko koordinazioa hobetzea.
- Arreta-baliabideetan arreta emandako emakumeei buruzko datuak partekatzea, erakundeen erantzuna hobetzeko.
- Mahai Teknikoan parte hartzen duten pertsonen artean informazioa trukatzeko tresna bat izatea.
- Politikarientzako eta teknikarientzako prestakuntza zehatza antolatzea.
- KTMri, aldizka, indarkeria matxistari lotutako **informazio erabilgarria eta eguneratua** ematea.
- Urteko plangintza diseinatzea eta indarrean den urtean egindako lana ebaluatzea.
- Protokoloaren edukia zabaltzea.
- Protokoloan parte hartzen ez duten eragile garrantzitsuekin harremanak indartzea.
- Protokoloaren dokumentua arau esparru berriari egokitzea.
- Gaurkotasuneko gaiekin zerikusia duten mahaietan intereseko zenbait gogoeta sortzea.

Hurrengo tauletan, **2025eko helburuak eta urtean zehar egin diren ekintza zehatzak** erakusten dira, baita bakoitzean parte hartu duten eragileak, egindako ekintzetatik eratorritako produktua eta ekintza bakoitzak erantzuna eman nahi izan dion Protokoloko¹ neurria ere. Gainera, xehetasunez azaltzen da ekintza bakoitza.

¹ Durungaldean emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean jarduteko eta koordinatzeko II. protokoloak jasotzen duen jarraipenerako eta ebaluaziorako fitxa hartuko dugu kontuan, eta hala, protokoloan jasotako ekintzak zenbateraino betetzen diren ebaluatuko dugu.

AURTEN LANDUTAKO HELBURUAK ETA EKINTZA FINKATUAK

HELBURUAK	EKINTZAK	ERAGILEAK	DOKUMENTAZIOA/ ERATORRITAKO PRODUKTUAK	Protokoloko zer neurri erantzuten dion
1. Erakundeen arteko koordinazioa hobetzea.	- KTM, TKM, KPM eta KOMen bilerei data jartzea eta bilerak egitea.	Berdintasuneko teknikariak. Idazkaritza Teknikoa.	Bileren egutegia eta aktak.	<i>B2.1 Erakunde arteko koordinazioa hobetzea.</i>
2. Arreta eskaintzeko baliabideetan artatu diren emakumeei buruzko datuak partekatzea, erakundeen erantzuna hobetzeko.	- KTMko eragileen artean informazioa partekatzeko sortutako Excel tresna hiru hilean behin betetzea. - Lauhilekoko datuei eta koordinazio eta erantzunari lotutako hobekuntzei buruzko hausnarketa KTMn. - Artatutako emakumeei buruzko urteko datuen azterketa.	KTMko profesionalak. Berdintasuneko teknikariak. Idazkaritza Teknikoa.	Excel tresna. Urtean zehar artatutako emakumeei buruzko dokumentua.	<i>B2.1 Erakunde arteko koordinazioa hobetzea.</i>
3. Mahai Teknikoan inplikaturako eragileen artean partekatutako tresna bat izatea, informazioa errazago trukatu ahal izateko.	- Barne webgunea urtean zehar sortzen den dokumentazioarekin elikatzea. www.durangaldeprotokoloa.org	Berdintasuneko teknikariak. Idazkaritza Teknikoa.	Barneko webgunea.	<i>B2.1 Erakunde arteko koordinazioa hobetzea.</i>
4. Politikarientzako eta teknikarientzako prestakuntza espezifikoa antolatzea.	- KTMri eta interesa duten beste eragile batzuei zuzendutako prestakuntza. - Politikariei zuzendutako prestakuntza.	KTMko profesionalak. Interesa duten beste eragile batzuk. Politikariak. Berdintasuneko teknikariak. Idazkaritza Teknikoa.	Aurkezpenerako Power Point-a.	<i>I1.2. Politikarientzako eta teknikarientzako prestakuntza espezifikoa antolatzea.</i>
5. KTMri, aldizka, indarkeria matxistari lotutako informazio erabilgarria eta eguneratua ematea.	- Hileroko bidaltzea indarkeria matxistari lotutako albiste eta ekitaldien buletina (11 buletin).	Berdintasuneko teknikariak. Idazkaritza Teknikoa.	Hileroko buletinak.	<i>A1.2. Protokoloarekin lotutako baliabideak hedatzea.</i>
6. Urteko plangintza diseinatzea eta abian den urtean egindako lana ebaluatzea.	- <i>Urteko memoria</i> dokumentua egitea. - <i>Plangintza</i> dokumentua egitea.	Berdintasuneko teknikariak. Idazkaritza Teknikoa.	Urteko memoria. Urteko plangintza.	<i>K1.1. Protokoloaren ezarpenari lotuta, urteroko jarraipenaren txosten bat egitea.</i>
7. Protokoloaren edukia hedatzea.	- Protokoloaren triptikoa banatzea protokolotik kanpoko eragileekin egiten diren bileretan.	Berdintasuneko teknikariak. Idazkaritza Teknikoa.	-	<i>A1.1. Protokoloaren edukia hedatzea.</i>

Egindako ekintzen xehetasunak:

Erakundeen arteko koordinazioa hobetzea. Bilerei data jartzea eta bilerak egitea.

Gaur egun, Koordinazio Teknikoko Mahaiak ohiko lau bilera egiten ditu, hiruhileko bakoitzeko bat. Horietan guztietan, dagokion aldian artatutako emakumeen datuak aztertzen dira, eta informazio garrantzitsua trukatzeko da, indarkeria matxistari arreta ematen dioten zerbitzuen artean erakundearteko koordinazioa indartzeko.

2025. urtean zehar, Mahai Teknikoak lan-dinamika egonkor bati eutsi dio, koordinazio hori sendotzera eta emakumeen aurkako indarkeria matxistaren adierazpen desberdinen aurrean erantzun bateratua hobetzera bideratuta. Urtean zehar egindako bilera-egutegiei esker, aurrera egin da analisi partekatuan, beharren identifikazioan eta arreta-sistemaren funtzionamenduari buruzko hausnarketa kritikoan.

Mahai Teknikoak bikotekidearen edo bikotekide ohiaren arteko harremana gainditzen duten indarkeria-motak ikusarazteko ahaleginak egin ditu. Behartutako ezkontzaren analisisan sakondu da, goiz antzemateak dakartzan zailtasunak identifikatuz, baita kaleko jazarpenean ere, indarkeria matxistaren eguneroko adierazpen gisa ulertuta, prebentzio, segurtasun eta sentsibilizazio komunitarioaren esparruetatik erantzun koordinatuak eskatzen dituenak.

Era berean, Mahaiak indarkeria matxistaren biktima diren nerabe eta gazteei zuzendutako prebentzio- eta arreta-jardueren inguruko truke teknikoak bultzatu du. Prozesu horren barruan, dauden baliabideak berrikusi dira, behar espezifikoak identifikatu dira eta zerbitzuen esperientziak bateratu dira, arreta berezia jarri adin goiztiarretan protokoloak aktibatzeke dauden zailtasunei.

Ikuspegi operatiboago batetik, Mahaiak hiruhilekoko kasu errealek eta kasu hipotetikoak aztertu ditu, eta, horri esker, ikaskuntzak gauzatu ahal izan dira, eta zehaztasun handiagoz hauteman ahal izan dira oztopoak sortzen diren puntuak, zerbitzuen arteko komunikazioa hobetzeko beharrak, zailtasun operatiboak edo prozedurazkoak, bai eta erakundeen erantzuna nahikoa edo egokia izan ez daitekeen egoerak ere.

Alde horretatik, garrantzitsua da gune horiek hausnarketa partekaturako eta irizpideak homogeneizatzeko esparru gisa erabiltzea, arreta ez dadin esku hartzen duen profesionalaren mende soilik egon.

Koordinazioaren hobekuntzari dagokionez, 2025ean sendotu eta egonkortu egin da segurtasunaren arloarekiko harremana. Talde berri bat sartu ondoren, berriazko bilera bat egin zen protokoloaren esparruan, eta, horri esker, tokiko mahaia eta mahai teknikoetan parte-hartze aktiboa finkatzeko bidean aurrera egin ahal izan zen. Era berean, uztailaren 23an, mahai orokorra bildu zen kide berriekin, funtzionamendu bateratua berrikusteko. Berriki egindako barne-berrantolaketak kasuen jarraipen etengabea, koordinatua eta eraginkorragoa ahalbidetu du.

Bestalde, otsailaren 25ean, laguntza teknikotik bilera bat egin zen gizarte-langileekin, 2024an detektatutako korapilo batzuei erantzuna emateko. Gune horretan, mahaiak hobeto funtzionatzeko eta arreta-protokoloa hobetzeko proposamenak jaso ziren, eta berdintasun-arloaren eta gizarte-zerbitzuen artean jarduteko jarraibideak trukatu ziren; hala, sektoreen arteko koordinazio-kanalak indartu ziren.

Koordinazio Politikorako Mahaiari dagokionez, otsailaren 7an ohiko gai-zerrenda izan zuen bilera bat egin zen, eta ordezkari politikoek aurreko urteko ekitaldiaren eta aurtengo plangintzaren berri izan zuten. Mahai horretan, halaber, alderdi positiboen azterketa egin zen, baita inplikaturako erakunde bakoitzak hobetu beharreko elementuena ere.

Aurrerapausoak eman diren arren, hobetzeko moduko alderdiek bere horretan jarraitzen dute. Aurten, zailtasun nagusietako bat Osakidetza-erikiko koordinazioari dagokiona izan da. Zegokion mahai teknikoan, Ertzaintzak jakinarazi zuen Osakidetza-tik jakinarazi zitzaizela ez zutela bideratze-fitxa gehiago bidaliko. Idazkaritza teknikoak egoera hori argitzeko, zergatiak aztertze eta konpontze beharrezko egokitzapenak adosteko harremanak ezartzea aurreikusten du.

Testuinguru horretan, bereziki garrantzitsutzat jotzen da datu pertsonalen tratamenduaren eta babesaren arloko berariazko prestakuntza bultzatzea, jarduteko aukerak argitzen eta tartean diren profesionalen segurtasun juridikoa indartzen laguntzeko.

Helburua beteta



Arreta eskaintzeko baliabideetan artatu diren emakumei buruzko datuak partekatzea KTMko eragileen artean informazio sortutako Excel tresna hiru hilean behin betetzea.

2025. urtean, **Excel**² tresna erabiltzen jarraitu da kasuak kontabilizatzeko eta haien jarraipena egiteko, bai tokiko mahaietako kideek, bai mahai teknikoetako ordezkariak. Lan-tresna baliagarria da, datuak biltzeko tresna erraza eta erabilerraza, eta aukera ematen die teknikariei beren eguneroko jardueran integratuta dagoen tresna bat izateko eta, hala, indarkeria-egoeran dauden emakumei arreta integrala, koordinatua, banan-banakoa eta kalitatezkoa bermatzeko.

Tresna baliagarria da, oraindik ere, kasuak erregistratzeko, bai eta indarkeria hobeto ulertzeko ere, seme-alabei edo mendeko beste pertsona batzuei eragiten diena barne. Hala ere, zailtasun handiak daude datuak biltzeko eta "ikusezintzat" jotzen diren indarkeria-mota jakin batzuk identifikatu eta artatzeko.

Aldi berean, arreta-zirkuitura sartzeko hainbat bide identifikatu dira, hala nola gizarte-hezitzaileen esku-hartzea kasu batzuetan, eta horrek agerian uzten du detekzio- eta bideratze-mekanismoak indartzen jarraitu behar dela.

Aurrerapausoak eman diren arren, datuak biltzeko ibilbide argiak ezarri behar dira oraindik ere, erregistro hutsetik harago, kasuen jarraipen sistematikoa sustatzeko eta arreta hobetzen laguntzeko, eta, bereziki, baliabideen arteko koordinazioa hobetzeko. Alde horretatik, funtsezkoa da erakunde bakoitzak bere erregistro-sistemak izatea eta finkatzea, eta saihestu egin behar da informazioa beste eragile batzuek bidalitako dokumentuak betetzera mugatzea, esku-hartze koherentea, trazagarria eta kalitate handiagokoa bermatzeko.

Helburua erdibeteta



2Arreta jaso duten emakumeen inzialak biltzen ditu Excel-ak datuak lagatzen direnean, hala, jakin daiteke ea emakumeek protokolo baliabideetan arreta jaso duten.

Tresna hori gainerako baliabideetara iristen ez diren kasuak, gorabehera zehatzak, zailtasunak eta kasuen espezifikotasunak eta abar hautemateko abiapuntua da. Hortik abiatuta, erantzuna emateko eta hobetzeko ekintzak zehazteko saiakera egiten da.

Bildutako datuekin, urte amaieran, arreta jaso duten emakumeen datuei buruzko dokumentu bat prestatzen da (datuen azterketa estatistikoa) eta urteko memoriari eranstean zaio.

Tresna partekatua izatea. Barne-webgunea urtean zehar sortzen den dokumentazioarekin elikatzea. www.durangeldeprotokoloa.org

KTM osatzen duten kideentzako barne-erabilerarako web-espazio honek aukera ematen du prozesuan zehar sortzen diren **dokumentu** guztiak bertara iraultzeko: saioetako aktak, txostenak, jorratzen diren gaiei buruzko dokumentazio garrantzitsua eta abar.



durangeldeprotokoloa.org

Halaber, eskura dagoen informazioa berrikusten da, baliabideak hainbat espaziotatik sortzen ziren gogoeten jakitun egon zitezen: dokumentuak, webinarra...

Aurten webgunera igotako dokumentu batzuen adibideak: bilera guztien aktak eta informazio interesgarria.

Helburua beteta



Politikarientzako eta teknikarientzako prestakuntza zehatza antolatzea.

KTMri eta beste eragile batzuei zuzendutako prestakuntza + Politikariei zuzendutako prestakuntza.

Oso garrantzitsua da emakumeen aurkako indarkeria matxistaren inguruko trebakuntza eta prestakuntza sendoa eta espezializatua bermatzea protokoloa sinatu duen erakunde bakoitzeko profesionalentzat. Urtero bezala, aurten ere bi prestakuntza egin dira protokoloaren testuinguruan, KTMri eta KPMri zuzenduta.

Gainera, interesgarriak izan daitezkeen prestakuntza, mintegi eta jardunaldien berri eman diegu eragileei.

- **KTMri (eta interesa duten beste eragile batzuei) zuzendutako prestakuntza:**

Data: abenduak 5, 10:00etatik 14:00etara

Lekua: Durangoko Andragunea.

Iraupena: 4 ordu.



Prestakuntza mahai bakoitzaren beharretara edo interesetara, uneko berrikuntzetara edo udalerrri sinatzaileen berdintasun arloek antzematen dituzten interes berezietara zorrotz egokitu behar da.


Abenduaren 5ean, Mahai Teknikoari zuzendutako prestakuntza-saio bat egin zen, indarkeria matxistaren testuinguruetan banantze-egoeran dauden emakume eta neskatoei, haur eta nerabeei laguntzeari buruzkoa, bai eta erreparazio-eskubiderako sarbideari eta sistema judizialaren alternatibei buruzkoa ere. Prestakuntzak sistema juridiko penal eta zibilak emakumeengan eta banantze-prozesuak jasaten dituzten adingabeengan duen eragina aztertu zuen, eta horren ondorioak aztertu zituen maila emozionalean, sozialean eta ekonomikoan.

Era berean, horrelako testuinguruetan salaketa jartzetik harago dauden alternatibak landu ziren, eta sakondu egin zen kaltea konpontzeko eta suspertze integralerako eskubidean, erreparazioarako bide alternatiboen esplorazioan eta hainbat kasutako esperientzien azterketan, betiere, ikuspegi psikosozialetik lagunduta. Saioaren amaieran, parte hartu zuten profesionalen artean zalantzak eta hausnarketak trukatzeko gune bat egon zen.

Prestakuntza Indarkeria Matxistei Arreta Integrala emateko Zerbitzuak eman zuen, Deusto–San Inazio Modulu Psikosozialaren bidez, eta talde profesionalen gaitasunak indartzen lagundu zuen, arreta integralagoa, koordinatuagoa eta emakumeen eta adingabeen eskubideetan oinarrituagoa izan zedin.

Horrez gain, webgunean eskuragarri dagoen informazio laburtu garrantzitsua biltzen duen dosierra egin zen.

Parte hartu zuten eragileek oso ontzat eman zuten trebakuntza-saioa, 10 puntutik 9rekin.



- **KPMri zuzendutako prestakuntza.**

Data: azaroak 21, 9:00etatik 11:00etara.

Tokia: Durangoko Andragunea.

Iraupena: 2 ordu.




Protokoloaren esparruan, teknikarien zein politikarien inplikazioa ezinbestekoa da indarkeria matxistaren aurrean erantzun eraginkor eta koordinatua bermatzeko. Urtero bezala, Koordinazio Politikorako Mahaiko (KPM) ordezkariak prestakuntza-saio batean parte hartzeko gonbita egin zitzaion.

Saioa azaroaren 21ean izan zen, 9:00etatik 11:00etara, Andragunean (Durango), eta bi ordu iraun zuen guztira.

Saioaren helburuak honako hauek izan ziren: III. Akordioaren eta Durungaldeko indarkeria matxistaren aurrean jarduteko protokolo eguneratuaren oinarri diren funtsezko printzipioei buruz sentsibilizatzea, eta kasu praktikoetan oinarrituta lan egitea, koordinazioan eta arretaren kalitatean izan daitezkeen hobekuntzak identifikatzeko.

Hainbat udal sinatzaileetako alkateek parte hartu zuten saioan, baita Durungaldeko Mankomunitateko lehendakariak ere. Horrek ikuspegiak trukatzeari erraztu zuen, eta protokoloa garatzeko eta ezartzeko konpromiso politikoa indartu zuen. Hona hemen parte-hartzaileak eta saioaren balorazioa:

- Mikel Urrutia, Abadiñoako alkatea.
- Naiara Bildosola, Abadiñoako Berdintasun zinegotzia
- Orland Isoird, Berrizeko alkatea.
- Mireia Elkorobide, Durangoko alkatea.
- Jesica Ruiz, Durangoko Berdintasuneko zinegotzia.
- Alazne Mendizabal, Elorrioko Berdintasun zinegotzia.
- Eduardo Olaizola, Ertzaintzako komisario-burua.
- Leire Moral, Herritarren Babeserako burua.
- Idoia Otaduy, Mankomunitateko lehendakaria.



Helburua beteta



KTMri informazio erabilgarria eta eguneratua aldi berean eskaintzea

Hilero bidaltzea indarkeria matxistari lotutako albiste eta ekitaldien buletina (11 buletin).

Hileroko buletina _ Boletín mensual. Urtia 2019 _ Octubre 2019

BERRIAK - NOTICIAS

San Faustoi begira autodefentsa eta jai parekideak lantzeko tailerrak antolatuta dituzte

Mutuei zuzendua egongo da taller horietako bat eta jai parekideak nola landu daitezkeen azalduko dute. 15 eta 26 urte bitarteko mutuei zuzenduta dago. Emakumeek autodefentsa feministak lantzeko ikastaroa izango dute eskura... [Informazio gehiago>>](#)

Clamor contra un congreso sobre el síndrome de alienación parental en la Universidad de Deusto

El SAP es un hipotético síndrome que consiste en manipular a los niños y niñas para ponerlos en contra de otro miembro de la familia, generalmente la madre contra el padre. Mujeres que Aman Demasiado y la asociación contra la violencia Gafas Moradas... [Más información>>](#)

Emakunde erakunde eta eragile sozialekin lanean ari da emakume eta neskatuen salerosketa eta sexu esplotazioaren prebentzioan

Mahai honetan koordinazio, sentsibilizazio eta prestakuntza ekimen ezberdinak bultzatu dira. 2018an, adibidez, eremu ezberdinetako 233 profesionalak prestakuntza berezia jaso dute gaiaren inguruan. Honekin batera, mahaiaren helburuen artean... [Más información>>](#)

Durango decreta el «estado de emergencia» y se tiñe de violeta contra la violencia machista

Durango se tiñó ayer de luces violetas contra la violencia machista tras un trágico verano en el que, tan solo durante las fiestas de las capitales de Euskal Herria, se han registrado 25 denuncias por abusos sexuales. «¿Es normal que durante el mes de julio haya sido asesinada una mujer cada dos días?... [Más información>>](#)

Hilero bidaltzen zaie Koordinazio Teknikoko Mahaiko (KTM) kideei indarkeria matxistari lotutako intereseko **albisteak eta ekitaldiak** biltzen dituen **buletina**: gaiarekin lotutako albisteak, tokiko albisteak eta udalerriaz gaudikoko albiste interesgarri batzuk; EAEn esparruarekin lotutako jardunaldiak eta ekitaldiak; protokoloan parte hartzen duten udalerrietan gaiari buruz egiten diren ekitaldiak. Alderdi hori udal bakoitzeko berdintasun-teknikariei ematen duten informazioari esker sortzen da.

Helburua beteta



Urteko plangintza diseinatzea eta indarrean den urtean egindako lana ebaluatzea. *Urteko memoria* + *Plangintza* dokumentua egitea

Urtearen amaieran **urteko memoria** egiten da, eta Koordinazio Teknikoko Batzordeak berrikusten du. Ondoren, sinatu duten erakundeei aurkezten zaie. Egindako jarduketak, Koordinazio Teknikoko Batzordean hartutako erabakiak eta proposamenak jasotzen dira bertan, eta urtean zehar jasotako datu kuantitatiboak erregistratzen dira, indarkeriaren inpaktua ezagutu ahal izateko.

Hurrengo urterako **plangintza** ere egiten da, esperientzian eta prozesuan hautemandako beharretan oinarrituta. *Ad hoc* plangintza izaten da, KTMrekin partekatzen da eta KPMn aurkezten da. Dokumentuak 2026an jorratzeko helburu eta ekintza sorta bat biltzen du, Koordinazio Orokorreko Mahaiaren barne-hausnarketatik eta aurreko urteko memorian identifikatutako erronketatik abiatuta.

Gainera, dauden jarraipen-adierazleen datuak biltzen dira, parte hartzen duten erakunde eta jarduera eremu guztiei ebaluazio koordinatua eta etengabea egiteko aukera emateko, baterako jarduera planteatutako helburuetara etengabe egokitu ahal izateko.

Helburua beteta 

Protokolotik kanpoko eragileekin izandako bileretan **protokoloa hedatzea**.

Udalerrietako berdintasun-teknikariak protokoloaren memoria eta triptikoa hedatzeaz arduratzen dira.

Helburua bete gabe 

AURTEN LANDU DIREN HELBURU ETA EKINTZA ESPEZIFIKOAK				
HELBURUAK	EKINTZAK	ERAGILEAK	DOKUMENTAZIOA/ ERATORRITAKO PRODUKTUAK	Protokoloko zer neurri erantzuten dion
8. Protokoloan parte hartzen ez duten eragile garrantzitsuekin harremanak indartzea . Adierazlea: bilerak eta aktak	Harremanak eragile interesgarriekin: Hirugarren Sektore Soziala	Berdintasuneko teknikariak. Idazkaritza Teknikoa. Kanpoko eragileak.	Aktak	B2.7 Lanbiderekin erakundeko koordinazioa hobetzea. B2.8 Hezkuntzarekin erakundeko koordinazioa hobetzea. C1.2. Komunikabideak inplikatzeko B3.2. Gizarte zibileko erakundeekin lankidetzan aritzeko bideak ezartzea, indarkeria jasaten aritu daitezkeen edo ari diren emakumeekin prebentzio-eta hautemate-lanak egiteko eta haiei lagun egiteko.
9. Protokoloaren dokumentua arau esparru berriari egokitzea.	- Protokoloa eguneratzen hastea.	Idazkaritza Teknikoa. KTM. KOM	Aktak, mezu elektronikoak.	C1.1. Indarkeria matxistaren inguruko ezagutza sustatzea.
10. Indarkeria matxistari lotutako gaurkotasuneko gaiei buruzko hausnarketa teknikorako guneak sortzea. Adierazlea: aktak, materialak...	-Inguruko baliabideak ezagutaraztea, eragileek indarkeriari buruz jasotzen duten trebakuntzari buruz hausnartzea, indarkeria matxistaren biktima diren seme-alabei arreta ematea, etab.	Idazkaritza Teknikoa. KTM.	-	C1.1. Indarkeria matxistaren inguruko ezagutza sustatzea.

Egindako ekintzen xehetasunak:

8. Protokoloan parte hartzen ez duten eragile garrantzitsuekin harremanak indartzea:

Indarrean dauden tresna formaletatik harago, garrantzi berezia du esku hartzen duten beste eragile batzuekiko harreman-dinamikak ezartzeak eta indartzeak, arreta koherentea bermatzeko eta esku-hartzearen eremu guztietan erantzun eraginkorrakoak ahalbidetzeko.

2025ean, Koordinazio Orokorreko Mahaiak erabakita, **hirugarren sektore sozialarekin lan egitea lehenetsi da**. 2024an, Abadiño eta Berriz udalerriei zuzendutako prestakuntza garatu zen, eta 2025ean, berriz, lehentasunezkoztat jo zen Durango udalerrian oinarritzea.

Erabaki horrek erantzun egin zion hirugarren sektore sozialaren zeregina funtsezkoa dela protokoloan parte hartzen duten eragileen artean pertsonen salerosketa goiz, modu eraginkor eta koordinatuan atzematea bermatzeko. Bereziki, eragile horien parte-hartzea oso garrantzitsua da udalerri txikietan, haien esku-hartzea funtsezkoa baita erantzun egokia eta artikulatua ziurtatzeko. Azaroaren 25ean, esparru eguneratu bat eskaini zen, azkenaldiko legealdaketei, indarkeriaren kontzeptualizazioari eta biktimei arreta emateko eskura dauden baliabideen mapari buruz.

Gainera, **aurretik Lanbiderekin zegoen harremanari** eutsi zaio eta 2025ean lortutako akordioekin jarraitu da, etorkizuneko elkarlana sendotzeko. Hartutako neurrien artean, nabarmentzekoak dira idazkaritza teknikoarekin aldian-aldian harremanetan egotea eta Lanbideri gonbita egitea protokoloaren esparruan urtero antolatzen diren prestakuntza teknikoetan parte hartzeko. Lankidetzat hori estrategikotzat jotzen da indarkeria-egoeran dauden emakumeen detekzioan, arretan eta laguntzan koordinazioa hobetzeko.

Halaber, Durangoko Udaleko Migrazio eta Hirugarren Adinekoen Arlora hurbilpena da, eta baliabide garrantzitsu gisa identifikatu da, bai kudeatzen dituen programen esparruan gerta daitezkeen indarkeria-kasuak detektatzeko, bai bestelako laguntza espezifikoak behar izan ditzaketen emakumeak bideratzeko. Urtean zehar, zerbitzuak herriko mahaiaren bilera batzuetan eta protokoloari lotutako prestakuntza-ekintzetan parte hartu du. Alde horretatik, agerian geratu da haien parte-hartzea erakundearen arteko koordinazio-zirkuituaren barruko indargarri gisa hartzen dela nagusiki, eta ez presentzia iraunkorra duen baliabide gisa.

Helburua beteta 

9. Indarkeria-protokoloa arau-esparru berrira eguneratzea

2025ean, Mahai Politikoa, Mahai Teknikoa eta Mahai Orokorra bat etorri ziren indarrean dagoen **II. protokoloan** (2017) aldaketak eta eguneraketak egin behar zirela esatean, batez ere legeria berriak eta, bereziki, **EAEn emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta emateko Erakundearteko III. Akordioak** egindako aldaketen ondorioz.

Helburu horrekin, indarrean dagoen II. protokoloaren azterketa zehatza egin zen, haren edukia berrikusiz eta egungo arau-esparruarekin eta erakundeen akordioekin bat ez datozen atalak hautemanetz. Ondoren, III. Akordioarekin alderatu zen, eta arreta berezia jarri zitzaion haren printzipio, jarraibide eta koordinazio-mekanismoei, bi dokumentuen arteko lerrokatze egokia bermatzeko.

2025eko bigarren seihilekoan II. protokoloaren lehenengo zatia, teorikoagoa, eguneratzen hasi da, eta 2026ko lehen seihilekoan ildo horretan lanean jarraitzea aurreikusten da. Eguneratzearen helburua ez da sinatu berri den dokumentua ordezkatzeko, baizik eta eskualdeko protokoloa indarrean dauden marko arautzaile berrietara egokitzea. Azpimarratu behar da aldaketa horiek ez dituztela aldatzen eragile sinatzaileen eginkizunak eta erantzukizunak, EAEko III. Akordioa erreferentzia-esparrutzat hartzen jarraitu behar baitute. Protokoloak ez du aldatzen eta ordezkatzeko Akordio horretan ezarritakoa, baizik eta Durangaldeko errealitatera egokitutako koordinazio-mekanismo espezifikoaren bidez garatzen eta zehazten du. Hala ere, ezinbestekoa da txertatutako aldaketak ezagutzea, adostutako ildoak partekatzea eta lurraldean behar bezala aplikatuko direla bermatzeko behar diren koordinazio-mekanismoak definitzea.

Protokoloaren dokumentua berrikustearekin batera, beharrezkotzat jo da hari lotutako [indarkeria matxistaren arretarako baliabideen mapa, dibulgaziokoa](#), eguneratzea. Horretarako, baterako lanari ekin zaio, bai Mahai Teknikoan, bai Mahai Orokorrean, dauden baliabideak identifikatzeko eta gida eguneratzean indartu nahi diren mezuak definitzeko. Era berean, Mahai Politikoak positiboki baloratu zuen ekimena, eta herritarrentzako eta profesionalentzako informazio- eta orientazio-tresna gisa duen erabilgarritasuna nabarmendu zuen.

Orain arte erabilitako dibulgazio-materiala II. protokoloaren liburuxkakoa izan da.

Helburua beteta



10. Indarkeria matxistari lotutako gaurkotasuneko gaiei buruzko hausnarketa teknikorako guneak sortzea.

Urtearen hasieran, Mahai Teknikoak hausnarketa partekaturako gunea sortu zuen, indarkeria matxistari lotutako gaurkotasuneko zenbait gairen inguruan. Garatutako ekintzen artean, baliabide interesgarriak aurkeztea nabarmentzen da, bereziki **ATE Morea baliabidearen** funtzionamendua ezagutzeko egin den topaketa, indarkeria matxistan espezializatutako zerbitzua.

Era berean, **EUDELe** berriki emandako gomendioak berrikusi ziren, bereziki, egoera berezietan errolda egiteko irizpide komunaren dokumentua. Gomendio horrek egoera bereziki ahulean dauden pertsonen gizarte-errolatzeko kudeatzeko moduari buruzko orientazioa ematen die udalei, pertsona horiek oinarritzko eskubideak (hala nola osasun-arreta, gizarte-zerbitzuak eta gizarteratzeko sistemak) eskuratu ahal izatea bermatzeko. Dokumentu horri buruzko hausnarketari esker, tokiko zerbitzuen eguneroko lanerako duen garrantzia identifikatu zen, bai eta indarkeria-egoeretan egon daitezkeen emakumeak detektatzeko eta artatzeko izan dezakeen eragina ere.

Helburua erdibeteta



PROTOKOLOAREN HARIRA 2025EAN ARTATUTAKO KASUAK

Hurrengo atalean aurkeztuko ditugu indarkeriaren biktima izan, eta 2025ean protokoloari atxikitako udalerrietako (Abadiño, Berriz, Durango, Elorrio) baliabideetan artatu dituzten emakumeen kopuruari buruzko datuak.

Euskadin, **Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzearen aldeko lege** berriak ikerketa handitzeko eta datuen bilketa, komunikazioa eta zabalpena hobetzeko beharra jasotzen du. Jarduera horiek guztiak datu pertsonalen babesari buruzko legediaren xedapenetara eta Europako eta nazioarteko organismoek arlo horretan ezarritako irizpideetara egokitu behar dira. Tratamenduaren konfidentzialtasuna ezinbesteko baldintza da kasu guztietan eta jarraitu beharreko printzipiorik garrantzitsuen izaten jarraitzen du.

Indarkeriaren aldaketa kontzeptualarekin batera, kuantifikazioa ere aldatu da. Protokoloan informazioa sistematizatzeko ariketa bat egiten ari dira, indarkeria kuantifikatzeko eta instituzioetatik egiten den prebentzioa eta arreta hobetzen laguntzeko ereduak irudikatzeko.

Alabaina, indarkeria matxista kuantifikatzea zaila da, besteak beste, jartzen diren salaketak kasu guztien zati txiki bat baino ez direlako; maiz emakumeak ez direlako kontziente jasaten ari diren indarkeriaz; edo ez dagoelako adostasunik datuak biltzeko adierazleen eta irizpideen gainean, ondoren estatistikak modu fidagarrian egin ahal izateko.

Horrez gain, tokiko mahaiek aukera ematen dute kasu zehatzetan sakontzeko eta artatutako kasu zehatz guztietara hurbiltzeko (360ºko ikuspegia); izan ere, sistemaren baliabideek **artatutako** kasu guztiak (Mahai Teknikoaren kasuak biltzeko Excel-aren bitartez biltzen dira), zein **hauteman** arren artatu gabe dauden kasuak (ez direlako sistemaren baliabideetan sartzen, “arretaren linboan” dauden kasuak direlako, etab.) edo **susmoa** pizten duten kasuak (gehiago aztertzeko prozesuan) kuantifikatzen dira.

Hori guztia, erakundeetara hurbildu ez diren emakumeen, salaketa aurkeztu ez duten emakumeen edo indarkeriari beste bide batzuetatik (familia, emakumeen elkarteak, ahalduntze-eskolak...) aurre egiten dieten emakumeen errealitatera hurbiltzen jarraitzeko.

Jarraian, 2025eko datuak eskainiko ditugu hainbat aldagairen arabera; adibidez, emakumeek jasandako indarkeria mota, adina, jatorria eta babes-neurriak izatea edo ez. Kasu bakoitzean, gainera, dagokien udalerriaren arabera ere bereizi ditugu datuak.


2025ean, **109 emakume artatu dira guztira emakumeen aurkako indarkeria matxistagatik Abadiñon, Berrizen, Durangon eta Elorrian**, protokoloaren baliabideen esparruan. Zifra horrek esan nahi du 2024an baino 4 kasu gehiago izan direla, urte horretan 105 emakume artatu baitziren.

Lurraldekako banaketari erreparatuz gero, kasuen kopuruak gora egin duen udalerriak Durango (11 kasu gehiago) eta Abadiño (3 kasu gehiago) dira.

Garrantzitsua da azpimarratzea jasotako datuek artatutako emakumeen kopuruari egiten diotela erreferentzia, eta ez indarkeria-gertaeren kopuruari; izan ere, litekeena da emakume batzuek eraso bat baino gehiago jasan izana urte berean.

	2025		2024		Desberdintasuna
Udalerrria	Abs.	%	Abs.	%	Abs.
ABADIÑO	11	10,1	8	7,6	+3
BERRIZ	11	10,1	14	13,3	-3
DURANGO	67	61,5	56	53,3	+11
ELORRIO	20	18,3	27	25,7	-7
Guztira	109	100	105	100	+4

Lurraldeka, Durangok ditu kasu gehienak (% 61,5), ondoren Elorriok (% 18,3), eta Abadiñok eta Berrizek, berriz, % 10,1. Igoera Durangon gertatu da batez ere, eta neurri txikiagoan, Abadiñon.



Indarkeria matxista urte osoan zehar erregistratu da, eta hirugarren hiruhilekoan kontzentrazio handiagoa izan da.

1.HH	2.HH	3.HH	4.HH
29	22	31	27
GUZTIRA: 109			

Indarkeria motari erantzunez, aipatu beharrekoa da emakumeen aurkako indarkeria mota guztietatik bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindakoa dela ohikoena. 2025ean, erregistratutako kasu guztien % 72,5 izan dira tipologia horretako egoerak.

Pisu hori udalerrri guztien batezbestekoa baino handiagoa da Berrizen; izan ere, udalerrri horietan, bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eremuan izandako indarkeria artatutako kasuen % 81,8ra iristen da.

Bestalde, familiarteko indarkeria da artatutako kasu guztien % 19,3. Tipologia horrek eragin handiagoa du Abadiñon, bertan kasuen % 27,3 hartzen baitu, guztira 3 erregistroekin.

Era berean, datuek agerian uzten dute bikotekidearen edo bikotekide ohiaren esparrutik kanpoko sexu-indarkeriak duen garrantzia; izan ere, lurralde osoan artatutako kasuen % 7,3 hartzen ditu.



Azkenik, 2025ean indarkeria sexistatzat sailkatutako kasu bat erregistratu da.

2025EAN ARRETA JASOTAKO EMAKUMEAK, INDARKERIA MOTAREN ARABERA ETA UDALERRIKA.
ABSOLUTUAK ETA %.


		Genero- indarkeria	Familia barruko indarkeria	Sexu- indarkeria	Indarkeria sexista	Muturreko indarkeria	GUZTIRA
ABADIÑO	Abs.	7	3	1	0	0	11
	%	63,6	27,3	9,1	0	0	100
BERRIZ	Abs.	9	2	0	0	0	11
	%	81,8	18,2	0	0	0	100
DURANGO	Abs.	51	12	4	0	0	67
	%	76,1	17,9	6	0	0	100
ELORRIO	Abs.	12	4	3	1	0	20
	%	60,0	20,0	15,0	5,0	0	100
GUZTIRA	Abs.	79	21	8	1	0	109
	%	72,5	19,3	7,3	0,9	0	100

Emakumeen aurkako indarkeria matxista eremu publikoan zein pribatuan adierazten da, eta, sarritan, askoz ikusezinagoa da espazio jakin batzuetan. **Kasu gehienak familiaren eremuan** gertatzen diren arren, beste testuinguru batzuetan ere erregistratu dira; esate baterako, aisian, jaietan, lanean, osasungintzan, espazio birtualean eta kirolean.


INDARKERIAREN ESPAZIOA eta EREMUA %



DATUAK PARTEKATZEKO BAIMENA. %



KASUAK LEHENENGO ALDIZ IREKITZEA ETA BERRIZ IREKITZEA. %



Erregistratutako kasuen % 85 lehen esku-hartzei dagozkie, eta %15, berriz, kasuak berriro irekitzeari. Era berean, artatutako emakumeen % 74k informazioa trukatu ahal izateko baimen-akta sinatu dute baimendutako gainerako erakundeekin.

Biktimaren eta erasotzailearen arteko loturari dagokionez, datuek agerian uzten dute indarkeria matxista kasu gehienak harreman afektibo-sentimentalen eremuan gertatzen direla 2025ean, kasuen % 74,1ean erasotzailea biktimaren bikotekidea edo bikotekide ohia izan da. Erregistratutako kasuen % 19,4 senideek eragindako indarkeria izan da. Bestalde, kasuen % 4,6an erasotzailea ezezaguna zen, eta %1,9an soilik zen pertsona ezaguna.

EMAKUMEEN BANAKETA ERASOTZAILEREKIKO HARREMANAREN ARABERA 2025. ABSOLUTUAK ETA %

		Ezezaguna	Ezaguna	Familiakoa	Bikotekidea/bikotekide ohia	Guztira
ABADIÑO	Abs.	1	0	3	7	11
	%	9,1	0	27,3	63,6	100
BERRIZ	Abs.	0	0	1	10	11
	%	0	0	9,1	90,9	100
DURANGO	Abs.	1	1	13	51	66
	%	1,5	1,5	19,7	77,3	100
ELORRIO	Abs.	3	1	4	12	20
	%	15	5	20	60	100
GUZTIRA	Abs.	5	2	21	80	108
	%	4,6	1,9	19,4	74,1	100

Oharra: Kasu batean ezin izan da erasotzailearekiko harremana zehaztu, beraz, ez da tipologiaren araberako banaketan sartzen.

Datuek baieztatzen dutenez, indarkeria matxistak adin guztietako emakumeei eragiten die, baita gazteenei eta zaharrenei ere. 2025ean, artatutako emakumeen erdia inguru 31 eta 50 urte bitarteko adin-tartean dago, hau da, kasu guztien % 46,7. Aparteko irakurketa baten bidez ikus daiteke 30 urtetik beherakoak artatutako emakumeen % 29,0 direla, eta horietatik % 7,5 16 urtetik beherakoak direla. Bestalde, 65 urte edo gehiagoko emakumeak erregistratutako kasuen %8,4 dira, eta horrek agerian uzten du adin nagusiagoetan ere indarkeria matxista-egoerak daudela.

2025EAN ARRETA JASOTAKO EMAKUMEA ADINAREN ETA UDALERRIAREN ARABERA. ABSOLUTUAK eta %

		< 16 urte	16-20 urte	21-30 urte	31-40 urte	41-50 urte	51-64 urte	>65 urte	Guztira
ABADIÑO	Abs.	1	1	3	1	3	1	1	11
	%	9,1	9,1	27,3	9,1	27,3	9,1	9,1	100
BERRIZ	Abs.	0	0	2	3	3	2	1	11
	%	0	0	18,2	27,3	27,3	18,2	9,1	100
DURANGO	Abs.	3	5	11	18	12	11	6	66
	%	4,5	7,6	16,7	27,3	18,2	16,7	9,1	100
ELORRIO	Abs.	4	0	1	5	5	3	1	19
	%	21,1	0	5,3	26,3	26,3	15,8	5,3	100
GUZTIRA	Abs.	8	6	17	27	23	17	9	107
	%	7,5	5,6	15,9	25,2	21,5	15,9	8,4	100

Oharra: ez da adinari buruzko informazioa jaso bi kasutan.

Erasotzaileen adinari dagokionez, datuek erakusten dute tarteko adin-tarteetan kontzentrazio handiagoa dagoela. Zehazki, 31 eta 40 urte bitarteko taldea guztizkoaren % 27,4 da, eta, ondoren, 41 eta 50 urte bitarteko taldea, % 22,1.

Era berean, 30 urtetik beherako erasotzaileak ere garrantzitsuak dira; izan ere, informazioa eskuragarri duten kasu guztien % 34,8 dira. Azkenik, 65 urte edo gehiagoko erasotzaileak kopuru osoaren % 4,2 dira, eta horrek agerian uzten du adinez nagusiagokoetan ere indarkeria matxistaren presentzia dagoela.

ERASOTZAILEAK ADINAREN ETA UDALERRIAREN ARABERA 2025EAN. ABSOLUTUAK ETA %.

		< 16 urte	16-20 urte	21-30 urte	31-40 urte	41-50 urte	51-64 urte	>65 urte	Guztira
ABADIÑO	Abs.	0	1	5	2	1	1	1	11
	%	0	9,1	45,5	18,2	9,1	9,1	9,1	100
BERRIZ	Abs.	0	0	1	4	4	1	1	11
	%	0	0	9,1	36,4	36,4	9,1	9,1	100
DURANGO	Abs.	1	2	17	18	11	8	1	58
	%	1,7	3,4	29,3	31	19	13,8	1,7	100
ELORRIO	Abs.	1	2	3	2	5	1	1	15
	%	6,7	13,3	20	13,3	33,3	6,7	6,7	100
GUZTIRA	Abs.	2	5	26	26	21	11	4	95
	%	2,1	5,3	27,4	27,4	22,1	11,6	4,2	100

Oharra: Sei kasutan ez dago erasotzailearen adinari buruzko informaziorik. Erregistro horiek ehunekoen kalkulutik kanpo utzi dira, eta, beraz, adinari buruzko informazioa eskuragarri duten 95 kasuren gainean egiten da analisia.

Artatutako emakumeen jatorriari dagokionez, % 27,6ren jatorria protokoloan sartutako udalerriren batean dago (Abadiño, Berriz, Durango edo Elorrio); % 21,9, berriz, Bizkaiko beste udalerrri batzuetatik dator. Era berean, artatutako emakumeen % 3,8 Euskal Autonomia Erkidegoko beste udalerrri batzuetatik dator.

Bestalde, artatutako emakumeen % 46,7k Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo du jatorria. Talde horren barruan, Europar Batasunetik kanpo dauden herrialdeetatik etorritakoak nabarmentzen dira bereziki, artatutako kasu guztien % 32,4 baitira.

BIKTIMA DIREN EMAKUMEAK EMAKUMEEN JATORRIAREN ETA UDALERRIAREN ARABERA. ABSOLUTUAK ETA %.

		Udalerrria	Probintzia	Autonomia-erkidegoa	Herrialdea	EB	EBz kanpo	Guztira
ABADIÑO	Abs.	5	4	1	0	1	0	11
	%	45,5	36,4	9,1	0	9,1	0	100
BERRIZ	Abs.	6	1	0	0	0	4	11
	%	54,5	9,1	0	0	0	36,4	100
DURANGO	Abs.	11	17	2	7	5	23	65
	%	16,9	26,2	3,1	10,8	7,7	35,4	100
ELORRIO	Abs.	7	1	1	1	1	7	18
	%	38,9	5,6	5,6	5,6	5,6	38,9	100
GUZTIRA	Abs.	29	23	4	8	7	34	105
	%	27,6	21,9	3,8	7,6	6,7	32,4	100

Oharra: ez da informazioa jaso lau kasutan.

Erasotzaileen kasuan, % 26,8 protokoloa sinatu duten udalerriren batekoa da, eta beste % 20,6 probintziakoa. Erasotzaileen % 38,1 EBtik kanpoko herrialdeetakoak dira.

ERASOTZAILEAK, JATORRIAREN ETA UDALERRIAREN ARABERA. 2025. ABSOLUTUAK ETA %

		Udalerria	Probintzia	Autonomia- erkidegoa	Herrialdea	EB	EBz kanpo	Guztira
ABADIÑO	Abs.	4	4	1	0	1	1	11
	%	36,4	36,4	9,1	0	9,1	9,1	100
BERRIZ	Abs.	4	1	2	0	0	4	11
	%	36,4	9,1	18,2	0	0	36,4	100
DURANGO	Abs.	11	15	4	1	3	28	62
	%	17,7	24,2	6,5	1,6	4,8	45,2	100
ELORRIO	Abs.	7	0	0	0	2	4	13
	%	53,8	0	0	0	15,4	30,8	100
GUZTIRA	Abs.	26	20	7	1	6	37	97
	%	26,8	20,6	7,2	1	6,2	38,1	100

Oharra: Informazioa eskuragarri duten kasuen gainean egiten da banaketa.

Azkenik, azken urteotako arau-aldaketekin bat etorritik, emakume baten kontrako indarkeria gauzatzen den etxeetako seme-alabei buruzko datuak jasotzeko lan egin behar da. Datuak erregistratzeko egungo sistemak ez du aukera ematen indarkeria horren eraginpean egoteagatik kalteak jasan dituzten seme-alaben kopuruari buruzko zifra argirik lortzeko; hala ere, 2022tik aurrera hori zuzentzeko ekintzak jarri dira abian, eta adingabeen kopurua zenbatzen hasi dira.

Datu ofizialek arazoaren zati bat baino ez dute azaleratzen; izan ere, erakundeetara laguntza eske jo ez duten emakumeak ez dira erregistroetan jasotzen.

2025ean 71 adingabe eta haien kargu dauden pertsonak (2024an 44) erregistratu dira, emakumea indarkeria matxista jasaten ari den etxeetan bizi direnak.


Beraz, 2025ean, 180 pertsona artatu dira (151 2024an), emakume, seme-alaba eta beren kargura dauden beste pertsona batzuen artean, udalerri horietako indarkeria matxistagatiko protokoloaren esparruan.

2016tik 2025era bitarteko datuen bilakaerak erakusten du aztertutako udalerri guztietan erregistratutako kasuen kopuruak goranzko joera orokorra duela; 2022tik aurrera, igoera bereziki adierazgarria izan da, eta 2025ean, maximoa. 2019ra arte hazkunde progresiboa izan ondoren, 2020an eta 2021ean beherakada nabari da, ziur aski pandemiaren eraginari eta baliabideak atzemateko eta eskuratzeko zailtasunei lotuta, eta ondorengo urteetan susperraldi jarraitua etorriko da.

Oro har, kasuen guztizkoaren hazkundera ezin da egoeraren okerragotze gisa soilik interpretatu, baizik eta baliabideak detektatzeko, ikusarazteko eta eskuratzeko ahalmen handiagoaren isla gisa ere bai, eta horrek arreta- eta erregistro-sistemak sendotzearen eta sendotzen jarraitzearen garrantzia indartzen du.

	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024	2025
ABADIÑO	10	8	10	12	9	11	18	8	8	11
BERRIZ	4	9	13	8	9	5	5	6	14	11
DURANGO	41	53	51	65	37	44	50	43	56	67
ELORRIO	7	6	9	12	7	3	8	27	27	20
GUZTIRA	62	76	83	97	62	63	81	84	105	109

ERREGISTRATUTAKO INDARKERIA MATXISTA KASUEN KOPURUAREN BILAKAERA (2016-2025)



2025EAN IDENTIFIKATUTAKO AURRERAPENAK, LORPENAK, ZAILTASUNAK ETA ERRONKAK

Aurrerapenak eta lorpenak	- Hirugarren Sektore Sozialarekiko eta Durangoko toki-erakundeekiko harremana indartu da, eta protokoloa gune horietan zabaltzea sustatu da, detekziorako, bideratzeko eta laguntzeko funtsezko tresna gisa. - Mahai teknikoetan indarkeria matxistaren agerpen desberdinak jarri dira ikusgai, ikuspegi integralago batetik aztertu eta lantzeko modua hobetuz. - Teknikarien eta politikarien prestakuntza bultzatu da, eta hausnarketa bateraturako guneak sortu dira, esku-hartzea hobetzera, kontzeptuak eguneratzera eta gaitasun profesionalak indartzera bideratuta. - Berrizko tokiko mahaia sendotu da inplikaturako eragileen parte-hartze egonkorren bidez. - Bileren eta lan-dinamikaren jarraitutasuna bermatu da, aldizkakotasun konstantea mantenduz, baita alde aurretik zehaztutako gai-zerrenda eta funtzionamendua ere. - Segurtasunaren arloarekiko koordinazioa indartu da, parte-hartzea hobetuz eta kasuen jarraipen eraginkorra bultzatuz. - II. protokoloa arau-esparru berrira egokitzeko prozesuari ekin zaio, EAEko Erakundearteko III. Akordioarekin bat etorriz.
Zailtasunak	- Baliabide batzuetan oraindik ere zailtasunak daude artatutako kasuei buruzko datuak sistematikoki emateko, eta horrek egoeraren azterketa osoa eta partekatua egiteko aukera mugatzen du. - Informazio-fluxuan eta zerikusia duten eragile batzuen arteko komunikazioan arazoak hauteman dira, eta horrek eragin negatiboa izan du erakundeen arteko koordinazioan. - Aztertutako kasu batzuk gero eta konplexuagoak dira, eta horrek agerian utzi du lurraldean eskuragarri dauden koordinazio-mekanismoak eta baliabide espezializatuak indartzeko beharra. - Zerbitzuak berak proposatutako Osakidetza bideratzeko fitxak ez jasotzeak zaildu egiten du erakundearteko koordinazioa eta osasun arloan indarkeria matxistari arreta ematea.
Erronka nagusiak	- Parte hartzen duten eragileen arteko komunikazio-zirkuituak hobetzea eta sistematizatzea, informazio-fluxu arina, argia eta segurua ziurtatuz, arreta koordinatua bultzatzeko eta esku-hartzean bikoiztasunak edo hutsuneak saihesteko. - Sistema judizialarekiko koordinazioa hobetzea, baterako laneko guneak bultzatuz, erantzun koherenteagoa eta emakumeen babesa ardatz izango duena lortzeko. - Udaleko arlo berriak eta komunitateko eragileak (Migrazioa, Hirugarren Adina, Hezkuntza edo hirugarren sektore soziala) protokoloaren koordinazio-zirkuituetan modu sistematikoagoan integratzea. - Gizarte-hezitzaileekiko koordinazioa eta harremana indartzea, indarkeria matxista jasan duten emakumeen eta haien seme-alaben detekzioa handitzeko eta hobetzeko. - Emakumeen aurkako indarkeria matxista kasuaren aurrean jarraitu beharreko jardura-zirkuitua argitu eta sendotzea. - Larrialdi-egoeretan erantzun azkarra, koordinatua eta eraginkorra bermatzea.

